

## TRIGLAV, GOI MENDIETAKO ZEHARKALDIA ESLOVENIA

**ABUZTUAREN 20tik 28ra**

### BIDAIAREN NONDIK-NORAKOAK

Bilbo – Venecia - Bled / Bovec - Venecia – Madril - Bilbo

- Gau 1 aterpetxean
- 5 gau mendiko aterpeetan
- 2 gau hotelean

**6 etapako Goi Mendiko zeharkaldia**, arratsalde librea Bled herrian eta egun librea Bovec herrian. Ostatua mantenu erdian.

Esan bezala, Goi Mendiko zeharkaldia da, non partehartzaile bakoitza kapaz izan behar den 18km eta 1250m+ko ibilbidea egiteko motxila pisutsuarekin.

Ibilbidean zehar 2400m-ko altuerara igoko gara.

### IZEN-EMATEAK

- 37 leku egongo dira
- Izena emateko epea maiatzaren 9tik 23ra arte izango da, gure web-orrian.
- Izena ematerako orduan beharrezkoak diren datuak hauek izango dira: Izen-abizenak, NAN zenbakia, telefonoa, herria eta lurraldea, posta elektronikoa eta bazkide zaren ala ez adieraztea.
- Izena emateak ez du tokia izatea ziurtatzen
- Izena ematen duten pertsonen artean, bidaiaren kartela publikatzen den eguna baino lehenago bazkide diren pertsonak lehentasuna izango dute.
- Bazkideen artean plazak betetzen ez badira, bidaiaren kopurua bazkide ez direnekin beteko da, zozketa bidez. Zozketatik kanpo geratzekotan, ez-bazkide horiek itxaron zerrendan geldituko lirateke.
- Eskaintzen diren plazak baino bazkide gehiagok izena ematen badute hauen artean zozketa egingo da.
- Zozketatik kanpo geratzekotan, bazkide horiek itxaron zerrendan geldituko lirateke, ez-bazkideen aurretik lehentasuna edukiz.

- Zozketa beharrezkoa izatekotan maiatzaren 29an egingo genuke, taldearen egoitzan.
- Zozketaren emaitzak posta elektronikoko bidez helaraziko zaizkizue.

## IZEN-EMATEA BAIEZTATZEKO

- Beharrezkoa izango da **FEDERATUA** egotea eta **MUNDUKO LUZAPENA** izatea.
- Beharrezkoa izango da **FEDME LUZAPENA** izatea
- Aurretik aipatutako lizentziak Mendiko Lagunak mendi taldearekin ez izatekotan, hauen kopia aurkeztea beharrezkoa izango da.
- Bazkide ez izatekotan, bazkide egitea beharrezkoa izango da.
- **EKAINAREN 1-15 BITARTEAN, ORDAINKETA** egitea eta eskatutako **DOKUMENTAZIO** guztia email bidez helaraztea beharrezkoa izango da (Ordainketa agiria, NAN-aren kopia, federazio eta FEDME txartelaren kopia, gurekin tramitatua ez badago)  
[mendikolagunakmenditaldea@gmail.com](mailto:mendikolagunakmenditaldea@gmail.com) helbide elektronikora.
- **ALERGIA** edo **INTOLERANTZI**en inguruan informatzea ere beharrezkoa izango da.
- **Aurretik adierazitako epeak ez betetzea bidaia egiteko lekua galtzea suposatuko luke**